



Idazkia bere tramiteko
Pasarela
Pase el presente escrito al Negociado de
..... para su trámite
LASARTE-ORIA 2016 56A: 09
IDAZKARI OROKORRAK

UDALETXEKO ERAIKIN PUBLIKO GUZTIETAN IREKITZE SISTEMA AUTOMATIKODUN ATEAK JARTZEKO MOZIOA

Herritarren irisgarritasuna defendatuko duen eta bermatuko duen udalerrri bat eraikitze aldera urratsak ematen jarritu behar dugula pentsatzen dugu Lasarte-Oriako EAJ taldetik. Urratsak ematen ari dira dagoeneko, baina gehiago eman behar ditugu oraindik, etorkizunera begira, Lasarte-Oriak eremu atseginagoak eta irisgarriagoak izan ditzan.

Urrats garrantzitsu bat izango litzateke udaletxeko eraikin publikoetako sarrerako atearak "irisgarriak" bihurtzea. Eraikin horien sarbideetan, mugimendu sentsorea duten kristalezko gidaridun atearak ezartzea proposatzen dugu, horiek, aipatutako sentsoreari esker, pertsonen mugimendua antzeman eta, atera hurbiltzean, automatikoki zabalduko bailirateke, eraikin horietar sarbidea erraztuz

Aldaketa txiki honekin, udaletxeko eraikin publikoen irisgarritasuna hobetuko litzateke eta, modu honetara, lasartear guztien eta bereziki desgaituen eta mugimendu urriko pertsonen sarbidea erraztu eta ahalbidetuko litzateke.

EAJtik ezinbestekotzat jotzen dugu udaletxea zein udal zerbitzuak herritarren eskura jartzea, baita horretarako erraztasunak eskaintzea ere. Era berean, Udalaren lehentasuna da herritarrei, beren beharretara egokitutako irtenbideak ematea eta lasarte-oriatar guztiei irisgarritasun eskubide eta aukera berdinak bermatzea.

Horregatik guztiatik, Lasarte-Oriako EAJ-ko udal taldeak, udalbatzak honako akordio hauek onar ditzan proposatzen du:

- 1.- Desgaituen eta mugimendu urriko pertsonen sarbidea erraztu eta ahalbidetze aldera, Udaletxeko eraikin publikoetara sartzeko gaur egun dauden atearak, ahal den heinean egokitzea sistema automatikodunak ezarriz.
- 2.- Ateen egokitzeak egin ahal izateko aurrekontu partida egokia jasotzea 2016ko aurrekontuetan.

